


**XABIER ETXANIZ**
**«EKIALDETIK IRITSI ZEN ENARA» LIBURUAREN EGILEA**

Yangzi ibaiaren ertzean kokatutako Fengdu hiriko umezurtz-etxera eraman zuten Enara Fuhan 2005eko urtarrilean, astebete zuela. Feng Fu Han izena jarri zioten. «Fu» hitzak «zortea» esan nahi du, «Han»ek, berriz, «blai eginda» eta «Feng» hiriko umezurtz-etxeko haur guztien abizena da. Etorkezunean izan ditzakeen galderei erantzun nahian, Etxanizek «Ekialdetik iritsi zen Enara» idatzi du (Alberdania).

## «Adoptatzera animatzen dut jendea, baina modu kontziente batean»

organizaciones que no siempre cumplen los requisitos marcados por la legislación internacional y de cada país.

En 2003, el Gobierno de Costa Rica advirtió de la proliferación de agencias sin autorización legal ofreciéndose a tramitar la adopción de niños centroamericanos por internet. La voz de alarma la dio un trabajo de investigación realizado por el diario "La Nación". Dichas agencias facilitaban información detallada de los menores, su fotografía e, incluso, historial médico. A raíz de esta publicación, las autoridades descubrieron una red que, desde Guatemala, enviaba bebés a Estados Unidos a través de Costa Rica.

En mayo de 2008, el Gobierno de Guatemala se vio forzado a suspender por un mes la adopción de 2.300 menores por ciudadanos extranjeros para que la Procuraduría General de la Nación confirmara si realmente eran hijos de las personas cuyos nombres aparecían en los papeles. En 2007, el país dio en adopción a más de 5.000 niños, la mayoría a familias de Estados Unidos.

Para poner freno a las denuncias, el Ejecutivo impulsó una reforma que incluyó la creación de un organismo central para vigilar los procesos de adopción, permitiendo operar sólo a agencias acreditadas e imponiendo un sistema de pago transparente.

Hasta ese momento, los intermediarios recibían miles de dólares. «Necesitamos un sistema que garantice la transparencia, en el que la adopción se dé cuando un niño necesita un hogar, y no cuando una familia necesita un hijo», destaca Manuel Manrique, representante de Unicef en Guatemala.

Norma Cruz, directora de la Fundación Sobrevivientes, dedicada a ayudar a madres que han denunciado el robo de sus hijos, comparte la misma opinión. «No estamos en contra de la adopción. Nos oponemos al negocio en el que se ha convertido, donde la gente se hace rica vendiendo niños que han sido arrancados de los brazos de sus madres», incide.

Vietnam y Nepal también han estado en el ojo del huracán. En 2008, la embajada estadounidense en Hanoi publicó un duro informe en el que ponía de relieve que tanto los trabajadores de los hospitales como los de los servicios sociales recibieron incentivos económicos de los directores de los orfanatos por cada niño que «conseguían».

El 75% de los padres biológicos entrevistados reconoció haber recibido dinero del orfanato. El pago medio era de unos 240 euros, el equivalente a once meses de salario mínimo. En algunos casos, los niños fueron arrebatados en los mismos hospitales, al no poder sus padres hacer frente a las facturas médicas. En respuesta a este informe, Vietnam suspendió el convenio de adopción firmado con Washington en 2005.

Sobre Nepal, Unicef y Terres des Hommes alertaron del «deficiente» control sobre los orfanatos y las fraudulentas declaraciones de



ARGAZKIAK: Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

A. LERTXUNDI | DONOSTIA

**Laur urte pasatxo iragan dira Txinatik etorri zinetenetik. Zer moduz moldatu da Enara?**

Oso ondo, bost urteko ume arrunta da. Noizean behin, Txinako gaia aipatzen du. Berak badaki Txinan ama bat duela. Horregatik ez balitz, ume arrunta da.

**Liburuan, gainerako umeek izan dezaketen jarreraz kezkatu azaltzen zara, izan ere, haurrak maltzur joka dezakete «desberdina» sumatzen duten norbaitek.**

Oraingoan, ez dugu arazorik izan. Egia esan, txikiak dira oraindik eta ez dira hortaz jabetzen. Ez dute maltzurkeria hori. Batzuetan, «txinita» esaten diote, baina ez modu txarrean. Berak ere bere buruari esaten dio «ni naiz txinita eta zu zergatik ez zara txinita». Oraingoan, normaltasunez hartzen dute bai berak, eta bai bere ingurukoak.

**Ume bat adoptatzeko asmoa duzula esatean, edozein erantzun jasotzeko prest egon behar duzula diozu liburuan. Denbora tarte honetan, jendeak adopzioaren gainean duen ikuspegia aldatu al da?**

Berdin jarraitzen du. Aurreiritziak eta pentsamenduak aldatzeko urte asko behar dira. Lau urte ez dira ezer.

**Liburuan «zergatik ez?» galdera botatzen duzu. Nik, berriz, «zergatik bai?» galdetzen dizut.**

Munduan haur piloa dago eta ume horiek gure beharra dute. Maitasuna eman-go dieten norbait behar dute. Seme-alabak izatea erabaki genuenean, galdera hori egin genion gure buruari, «zergatik ez?». Beraiek behar dute eta guk ahal dugu –ekonomikoki eta intelektualki gaitasuna dugulako–, zergatik ez? Dena den, gu ez gara gobernu kanpoko erakunde bat. Bakarra adoptatu dugu. Etxea dugu

**ZERGATIK EZ?**

*«Munduan haur piloa dago eta ume horiek gure beharra dute. Beraiek behar badute eta guk ahal badugu, zergatik ez?»*

na da eta ezin dugu jende asko sartu. Ez dela nahikoa, badakigu, baina tira... Jendea animatzen dut, baina modu kontziente batean, ez baita supermerkatuara joatea. Oso esperientzia polita da.

**Nazioarteko adopzioei dagokionean, salaketa ugari egon dira. Azkenak, Haitikoak. Zer bururatzeko zaizue albiste horiek jasotzean?**

Alde batetik, beharra egon badago, ume asko geratu baitira umezurtz. Bestalde, adopzioa ondo ulertzen ez duen jende askok horretara joko duela iruditzen zait. Ez litzateke hartu behar gurasoen premia bati erantzuteko, haurren premia bati erantzuteko baizik. Kontua ez da «nik haur bat behar dut», baizik eta «haur horrek gurasoak behar ditu». Jendea Haitira «nik haur bat nahi dut, oso politak direlako» ustearekin joatea, gaizki iruditzen zait. Baina lurrikara aurretik abian zeuden prozesuak azkartzeari ondo deritzot. Azken batean, burokrasia hutsa da. Orain adopzio prozesu berriak abian jartzea, gaizki iruditzen zait.

**Zer adierazten dizu «adopzio» hitzak?**

Haitin edo «hirugarren munduan» daudden haurren beharren ginetik aita edo ama izatearen beharra jartzea ez da adopzioa. Nire nahi pertsonala haurrena baino handiagoa bada, hori ez da adopzioa, hori kapritxoa da. Abiapuntua okerra da erabat. «Zer pobreak diren» eta antzeko diskurtsoek sekulako amorrua ematen didate, errukiaren ize-nean ume bat hartzea negozioa da.

**Prozesua hasi zenutenean, halako beldurrik izan zenuten herrialdea aukeratzekoan?**

Gardentasun ezaren susmoa Errusia alde batera uzteko arrazoiatariko bat izan zen eta horrek Txinara eraman gintuen, bertan prozesuak oso garbiak direla esan baitziguten. Errusiaren eta Ukrainaren, kasuan, prozesua zein neurriraino gardena den ez dakit, baina halako salta batean sartzen zarenean, informazioa bilatzeari ekiten diozu eta denetarik irakurtzen duzu. Ezin duzu den-dena sinistu, baina kontxo... orokorrean, herrialde horietatik zetozkigun berriak ez ziren oso oso onak.

**Zer gomendatuko zenieke haur bat adoptatu nahi dutenei?**

Pazientzia, dena iristen da.

**Nola gogoratzen duzu Enararen bila egindako bidaia?**

Zoragarria izan zen. Alde emozionalaz gain –azken batean, Enararen bila joan ginen–, Txina izugarria da. Hain da desberdina. Ni, adibidez janariarekin izugarri ondo moldatu nintzen. Hemengo jatek txinatar batean jaten duzunak ez du zerikusirik hango janariarekin. Festa bat izan zen guretzat bidaia.

**Bai Enara eta bai Garazi txinera ikasten ari dira. Zer moduz moldatzen dira?**

Astean behin joaten dira. Klasera sartu aurretik, beti kexati azaltzen da Enara. Ikastolatik atera eta gelara iritsi bitartean, «ez dut joan nahi, nekatuta nago» eta halakoak esaten dizkigu. Baina gero oso pozik ateratzen da. Garazirekin gauza bera gertatzen da. Batetik ehunera zenbatzen ikasi dute jada. Hamaika aldiz erakutsi didate batetik hamarrera zenbatzen, baina bederatzigarrenera iristean, beti zuzentzen didate. Duela pare bat urte, klasera eraman genuenean, Enarak ez zuen sartu nahi izan. Ez dakit zer pasatzen zaien burutik. Izan ere, hara iristean bera bezalakoa den irakaslea eta ikaskideak ikusten ditu. Horrek zerbait mugiarazten die barrenean eta, batzuetan, kontrako sentimendua sortzen zaie. Badakite adoptatuak direla, ama bat dutela Txinan, baina, ikaste prozesua luzea da.